

eremuak 2023

HALFHOUSE EGONALDIRAKO DEIALDIA

eremuak arte garaikidean testuingurua sortzeko Eusko Jaurlaritzaren programa irekia da. Gaur egun, KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA, SAK (aurrerantzean, "Tabakalera") kudeatzen du. eremuak-en xede nagusia da artista eta sortzaileei plataforma bat eskaintzea, eztabaida eta topaketarako giroa sortzea, eta errealitate artistiko garaikidearen behatoki izango den lantoki bat gaitzea.

eremuak-ek egiten dituen ekintzek lagundu egiten dute Euskal Herrian arte garaikideari buruzko eztabaida gertatzen den testuinguruak eratzen, optimizatzen edo hobetzen.

eremuak-ek, **Halfhouse**-rekin lankidetzan, egonaldien deialdi bat zabaldu du Euskal Autonomia Erkidegoko artista, sortzaile edo egoiliarrentzat. Deialdiak xede du arte bisualen arloan lan egiten duten artistak edo sortzaileak babestea. **Egonaldia 2023ko irailaren 4tik hasita (astelehena) azaroaren 4ra (larunbata) bitarte izango da**; Halfhouse-k Bartzelonan duen egoitzan. Egonaldia amaitzeko, epe horretan egindako lanen erakusketa egingo da, eta **2023ko azaroaren 4an** (larunbata) inauguratuko da espazio horretan bertan.

Halfhouse irabazi asmorik gabeko espazioa da eta artearen esparruko proiektuak garatzen ditu. 2009an fundatu zenetik 2018ra bitartean, proiektua sortzaileen (Sinéad Spelman eta Alberto Peral artistak) etxebizitzan garatu da. Denbora-tarte horretan, nazioko zein nazioarteko artistek euren lana aurkeztu eta workshop-ak egin dituzte Halfhouse-n, eta espazioko ekintzen artean beti izan da oso garrantzitsua artisten egonaldia. 2016az geroztik, Halfhouse-k egonaldien akordio bat sinatu du **eremuak**-ekin, urtero Euskal Herriko artista edo sortzaile bat gonbidatzeko.

Egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisiko guztiek hartu ahal izango dute parte deialdian.

Halaber, deialdian hartu ahalko dute parte gehienez ere bi pertsona fisikok batera, euren harremana formalizatu behar izan gabe. Halakoetan, pertsona fisiko bat izendatu edo identifikatu beharko dute, proposamenaren ordezkari izan dadin ondore guztietarako. Talde bateko bi pertsonak ezin izango dute banaka parte hartu.

1. ESPAZIOAREN EZAUGARRIAK

En 2018 el Área de cultura del Ayuntamiento de la ciudad de Barcelona premiaba la actividad de Halfhouse por su trabajo realizado en apoyo a artistas y creadores, al tiempo que el proyecto iniciaba una nueva etapa marcado por el cambio de sede al barrio de La Verneda, donde se han creado nuevos espacios de trabajo y se ha mantenido un excelente programa de exposiciones. La residencia 2023 de **eremuak** en Halfhouse se desarrollará en la **sede de La Verneda**, donde Halfhouse comparte espacio con algunos otros talleres de artistas, lo que permitirá a quien/es disfrute/n la beca establecer relaciones de cercanía con el contexto artístico barcelonés de manera rica e intensa.

El/la/los residente/s tendrá/n a su disposición un taller de trabajo en uno de los estudios asociados a Halfhouse donde podrá/n desarrollar su proyecto. La sede de Halfhouse está localizada cerca de la parada de metro de Sant Martí, accesible a través de la Línea 2 (lila) de Metro.

Este año el/la/los/las residente/s se alojará/n en **una habitación con cama doble** situada en la sede donde se ubica el espacio expositivo de Halfhouse y el taller. Además de disfrutar de la habitación el/la/los residentes tendrá/n acceso a baño, comedor y una cocina.

La exposición con la que culminará la residencia tendrá lugar en la sede de Halfhouse. Coincidiendo con el montaje y los preparativos propios de la exposición, el/la/los/las artista/s contará/n con apoyo y seguimiento de Halfhouse. Asimismo, Halfhouse facilitará contactos a la/s persona/s residente/s con el tejido artístico de la ciudad.

2018an, Bartzelonako Udaleko Kultura Arloak saritu egin zuen Halfhouse-ren jarduera, artistak eta sortzaileak babesten egindako lanagatik, eta aldi berean, proiektuak etapa berri bati ekin zion, egoitza La Verneda auzora lekualdatu zutenean. Bertan, lanerako espazio berriak sortu dira eta erakusketa-programa ezin hobeari eutsi diote. eremuak-en 2023eko Halfhouse-ko egonaldia **La Verneda-ko egoitzan** egingo da, non Halfhouse-k espazioa partekatzen duen artisten beste tailer batzuekin. Horrek aukera emango du bekadunak/bekadunek hurbileko harreman aberats eta bizia izan dezaten Bartzelonako testuinguru artistikoarekin.

Egoiarrak/egoiarrak eskura izango du/dute lan-espazio bat Halfhouse-kin lotutako estudioetako batean, eta han garatu ahal izango du/dute bere/euren proiektua. Halfhousen egoitza Sant Martí-ko metro-geltokitik hurbil dago, eta metroaren 2 linearen bidez (lila kolorekoa) iristen da bertara.

Aurten, egoiarrak/egoiarrak Halfhouse-ko erakusketa-espazioa eta tailerra hartzen dituen egoitzako **ohe bikoitzeko gela batean** hartuko du/dute ostatu. Gela erabiltzeko aukera izateaz gain, egoiarrak/egoiarrak bainugela, jangela eta sukaldea izango ditu/dituzte.

Egonaldia amaitzeko egingo den erakusketa Halfhouse-ko egoitzan egingo da. Egoiarrak/egoiarrak Halfhouse-ren laguntza izango dute erakusketa muntatzeko eta prestatzeko, eta hark egingo du erakusketaren jarraipena. Halaber, Halfhouse-k hiriko sare artistikoarekin harremanetan jartzeko kontaktuak emango dizkio/dizkie egoiarrari/egoiarrari.

2. EGONALDIK ESKAINTZEN DITUEN BALIABIDEAK

- Bi hilabeteko egonaldia, Halfhouse-ren lan-tailerra eta ohe bikoitzeko gela barne, gehienez ere bi pertsonarentzat.
- Argi-, internet-, ur- eta gas-gastuak barne daude.
- Egoiarrarentzat/egoiliarrentzat ordainsaria: 1.500 € guztira, egoiliar-kopurua gorabehera (1 edo 2 pertsona). Ordainketa faktura bidez egingo da.
- Erakusketaren produkzioa: 1.000€. Kopuru hori **eremuak-ek** kudeatuko du zuzenean osorik.
- Joan-etorriko bidaiak pertsona batentzat edo birentzat (egoiliarrak) 150€, edo 300€ bi pertsona izanez gero.
- Hileko metro-bonuaren gastua pertsona batentzat edo birentzat (egoiliarrak): 100 €, edo 200 € bi pertsona izanez gero.
- Erakusketan aurkeztutako obra ekartzeko garraioa: gehienez ere 300 €.
- Erakusketa produzitu eta muntatzeko laguntza logistikoa.
- Erakusketaren hedapena.

Joan-etorriko bidaian eta metroaren hileko bonuetan izan ezik, epigrafe honetan jasotako gainerako zuzkidurek horien zenbateko osoa islatzen dute, eta artista onuradunak pertsona bat edo bi diren alde batera utzita, ez dira inola ere eskainitakoak baino handiagoak izango.

Atal honetan aipatutako zuzkidurak BEZik gabekotzat jotzen dira; hortaz, gastuaren zerga-oinarria baino ez da izango haien xede.

3. EGUTEGIA

- Deialdian eskaerak aurkezteko epea 2023ko **apirilaren 25an ireki eta 2023ko ekainaren 4ean bukatuko da**, gauerdian.
- Hautaketaren emaitza **ekainaren 15ean** argitaratuko da **eremuak** webgunean : www.eremuak.eus
- Egonaldia **2023ko irailaren 4tik azaroaren 4era** izango da.
- Erakusketaren irekiera **2023ko azaroaren 4ean** izango da.

4. ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

eremuak-en Batzorde Teknikoak eta Halfhouse-ko ordezkariak osaturiko epaimahaiak aztertuko dituzte jasotako eskaerak.

Eskaera esteka honen bidez egin beharko da: <https://eremuak.eus/halfhouse/izena-emateko-orria/>, honako 5 dokumentu hauek erantsita, banaka, konprimitu gabe.

BOST DOKUMENTUAK (ez dira gehiago ez gutxiago izango) honela banakatzen dira:

1. Dokumentua: Eskatzaile guztien **zerga-egoitzaren ziurtagiria**, Zerga Administrazio eskudunak emana, **pdf formatuan**. Artxibo horren izenburua eskatzailearen **lehen abizenak** eta **haren ponte-izena** gehi **residenciafiscal** hitzak osatuko dute, **punturik, komarik edo tarterik sartu gabe**. Adibidea: **etxeberriajonresidenciafiscal.pdf**

2. Dokumentua: **Zerga-betebeharrak ordaindu izanaren ziurtagiria**, **pdf formatuan**. Artxibo horren izenburua eskatzailearen **lehen abizenak** eta **haren ponte-izena** gehi **tributos** hitzak osatuko dute, **punturik, komarik edo tarterik sartu gabe**. Adibidea: **etxeberriajontributos.pdf**

3. Dokumentua: **Dosierra**, informazio honekin:

- **Datu pertsonalak eta harremanetarako datuak.** Ezinbestekoa da helbide elektronikoa eta harremanetan jartzeko telefonoa adieraztea.
- **Biografia laburra**, gehienez 1.000 karaktere dituena, tarterik gabe (200 hitz inguru).
- Eskatzaile guztien **NANA, pasaporte edo egiaztapen-dokumentua**.
- Bi parte-hartzaileen zinpeko aitortpena (bikoteka parte hartuz gero bakarrik), deialdi honen ondorio guztietarako ordezkari gisa jardungo duen pertsona fisikoa izendatuz.
- **Duela gutxi egindako proiektuen 10 irudi gehienez**, horietako bakoitzaren fitxa teknikoa eta deskribapen laburra barne.
- Beren lanean **ikus-entzunezko** baliabideak erabiltzen dituzten sortzaileek **gehienez 5 esteka** erantsi ahal izango dituzte, horiek ikusi ahal izateko (webguneak, blogak, vimeoa, youtubea). Epaimahaiak **minutu bateko** zatiak bistaratuko ditu; beraz, **ikusarazi nahi den zatia zehaztea** gomendatzen da.

Dosierra pdf edo **Word** dokumentua izan daiteke. Artxibo honen izenburuan eskatzailearen **lehen abizena** eta **ponte-izena** eta **dosier** hitza agertuko dira, **punturik, komarik edo tarterik sartu gabe**. Adibidea: **etxeberriajondosier.pdf** edo **etxeberriajondosier.docx**

4. Dokumentua: **Motibazio-eskutitza**, gehienez ere 1.800 karakterekoa zuriunerik gabe (350 hitz inguru). **Pdf** edo **Word** dokumentua izan daiteke. Artxibo honen izenburuan eskatzailearen **lehen abizena** eta **ponte-izena** eta **carta** hitza agertuko dira, **punturik, komarik edo tarterik sartu gabe**. Adibidea: **etxeberriajoncarta.pdf** edo **etxeberriajoncarta.docx**

5. Dokumentua: Dokumentazio osagarria erantsi ahal izango da, eta epaimahaiak material hori ikusi ahal izango du informazio gehigarria behar izanez gero. **Pdf** edo **Word** dokumentua izan daiteke. Artxibo honen izenburuan eskatzailearen **lehen abizena** eta **ponte-izena** eta **masinfo** hitza agertuko dira, **punturik, komarik edo tarterik sartu gabe**. Adibidea: **etxeberriaonmasinfo.pdf** edo **etxeberriaonmasinfo.docx**

5. Batzordearen erabakiak apelaezinak izango dira.

6. Oro har, alderdi bakoitzak ordaindu beharko ditu indarreko araudiaren arabera dagozkion zergak. Hala badagokio, Tabakalerak diruz eta gauzaz ordaindutako zuzkiduren balio totalaren gainean dagozkion atxikipena egingo du.

7. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaile eta ordezkari bermatuko dute eremuak-i emandako dokumentazio grafiko, testual eta ikus-entzunezkoak edota bestelako edozein elementu originalak izango direla eta ez dituztela hirugarrenen jabetza intelektualeko edo jabetza industrialeko eskubideak urratzen honako kasu hauetan: (i) proposamenaren testuinguruan eta, hala badagokio, (ii) oinarri hauen xede den laguntza duen proposamenaren exekuzioan zehar, aukeratuak izanez gero. Ondorioz, eremuak-en edo haren hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute material horiei begira hirugarrenek jabetza intelektual eta industrialaren harira erreklamazioen bat aurkeztuz gero.

Oinarri hauek onartzean, parte-hartzaileek eta ordezkariak baimena ematen diote eremuak-i edozein euskarritan erabiltzeko aurkeztutako dokumentazio grafikoa, testuala edo ikus-entzunezkoa edo proposamenean jasotako beste edozein elementu, baldin eta laguntza jaso badute, laguntza horiek hedatzeko eta proposamenak exekutatzeko xede bakarrarekin.

Aurreko guztiak ez die kalterik egingo aipatutako elementuen gaineko egile-eskubide moralei eta jabetza intelektualaren eta industrialaren ondare-erabakidaren eskubide guztien titulartasunari. Azken horiek parte-hartzaileei eta ordezkariak dagozkie aurrerantzean ere.

8. DATU PERTSONALEN BABESA

Parte-hartzaileei eta ordezkariak jakinarazten zaie oinarri hauek onartzearekin batera baimena ematen diotela eremuak-i proposamenaren aurkezpenaren unean eta oinarri hauen xede den laguntzarekin hornitutako proiektuaren exekuzioan emandako datu pertsonalak tratatzeko, baldin eta hautatuak izaten badira. Tratamendu horren xedea izango da proposamena izapidetu eta kudeatzea, baita esleitzen diren laguntzak baliatzea eta laguntza horiekin hornitutako proposamena hedatzea ere.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta horretarako betebeharrak baldin badago. Halaber, eta 9. baldintzan xedatutakoari jarraikiz, hautatutako parte-hartzaile edota ordezkari onuradunen izena jakinarazi ahalko ditu eremuak-ek oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta haiekin hornitutako proposamena gauzatzeko erabiliko dituen jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru horretan, nabarmentzen da datu pertsonal horiek aurkeztea beharrezkoa dela; izan ere, datu horiek ez badira aurkezten, proposamena eta deialdiko parte-hartzea ezingo dira kontuan hartu.

Parte-hartzaileen edo ordezkarien datu pertsonalak gorde egingo dira haien proposamena baloratzeko eta, hala badagokio, laguntzak emateko eta baliatzeko kudeaketa egiteko behar-beharrezkoa den denboran, bai eta eremuak-en legezko betebeharrak betetzeko kontuan hartu beharreko kontserbazio-epe gehigarrian ere.

Edonola ere, jakinarazten zaie eskatzaileei eta onuradunei beren datuak tratatzeko baimena ezeztatzeko eta eskubidea dutela datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko eta tratamenduari uko egiteko edota mugatzeko. Horretarako, ohartarazi eremuak posta elektronikoz bidez (eremuak@eremuak.eus) edo aurkeztu erreklamazio bat [Datuk Babesteko Euskal Bulegoari](#) zein [aurretiatzko erreklamazio bat datuak babesteko ordezkariaren aurrean](#).

9. IRUDI ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartzearekin batera, hautatuak izango diren onuradunak baimena ematen diote eremuak-i honako hauetarako: (i) baliabide tekniko egokien bidez haien irudia erregistratzeko (argazkiak, bideoak, etab.); (ii) irudi horiek eta izena eremuak-en webgunean eta beste edozein euskarritan, bai fisikoa eta bai elektronikoa, erabili eta erreproduzitzeko, bere kontrolpean edo hirugarren laguntzaileen kontrolpean. Horren xede bakarra izango da oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta haiekin hornitutako proposamena exekutatzeko. Baimen hori ezeztagarria da.